

Abuztuaren 2an
URTEAN ZEHARREKO 18. IGANDEA

Agurra

Biziaren ogia dugun Jesus Jaunaren bakea izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Gaurko Ebanjelioan Jesusek erakutsiko digu, guztiok geuretik jarriz, denontzat irits daitekeela ongia.

Gaurko Eukaristian egin dezagun ahalegin berezia biziki parte hartzeko, adi egonez, arretaz erantzunez eta geuretik ipiniz, denontzat ospakizun pozgarria izan dadin.

Damu-otoitza

Senideok: aitor ditzagun gure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen:

—Aitortzen diot...

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

—Erruki, Jauna... Kristo, erruki... Erruki, Jauna.

Otoitza

**Zatozkie lagun, Jauna, zeure zerbitzariei
eta ager iezaiezu beti zeure bihotz ona otoizka ari zaizkizune;
eta egile eta gidari aitortzen baitzaituzte,
biziberri ezazu etengabe eta zaindu
Zeuk egina den mundu hau.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santurekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Hitzaren iturrira goaz: Jesusengan aurkitzen dugu dena, behar dugun guztia. Bera dugu Hitz bizi eta Ogi biziemaile. Entzun dezagun.

Lehenengo irakurgaia (Is 55, 1-3)

Isaias profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna: «Egarri zareten guztiok, zatozte uretara; dirurik ez duzenok ere bai; zatozte, erosi garia eta jan ordaindu gabe, ardoa eta esnea hutsean. Zergatik erailki dirua, janari ez den gauzetan? Entzun Niri, entzun eta ondo jango duzue; janari gozoen atsegina izango duzue. Erne belarriak, etorri Niregana; entzun, eta bizkortuko zarete. Betiko elkargoa egingo dut zuekin: Davidi agindu nion agintzaria».

Erantzun-salmoa (Sal 144, 8-9. 15-16. 17-18)



Kupibera da Jauna eta errukiorra,
berant-haserre eta guztiz **on**bera.
Ona da Jauna guztientzat,
errukior, Berak egin dituen**ent**zat. R/.



Guztien begiak daude Zuri **be**gira,
 Zuk ematen diezu beren garaian **jan**aria.
 Zabaltzen duzu zeure es**ku** hori,
 pozik ematen asean bizidun **dene**i. R/.

Zuzena da Jauna bere bide guz**ti**etan,
 zintzoa bere lan guz**ti**etan.
 Bertan dago Jauna deitzen duten**nen**gandik,
 zintzoki deitzen duten guz**ti**eng**an**dik. R/.

Bigarren irakurgaia (Erm 8, 35. 37-39)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei

Senideok: Nork aldenduko gaitu Kristoren maitasunetik?
 Nahigabeak, larriak, erasoaldiak, goseak, jantzirik ezak, arriskuak,
 ezpatak? Hala ere guzti horietan garaile ateratzen gara gu, maite izan
 gaituen Harengatik.

Badakigu ziur: ez heriok, ez bizik, ez aingeruk, ez nagusik, ez
 indarrek, ez oraingok, ez gerokok, ez izarrek, ez zeruk, ez itsas
 leizek, ez beste izakik, ezingo gaituela aldendu, Jesu Kristo gure
 Jaunaren agertzen den Jainkoaren maitasunetik.

Aleluia (Mt 4, 4b)



Gizakia ez da ogiz baka**rr**ik bizi,
Jaungoikoaren ahotik a**te**ratzen den
hitz guztit**i**k baizik. R/.

Ebanjelioa (Mt 14, 13-21)

Homiliarako argibideak

Parabolen zatia amaiturik, beste alor batean sartzen gara Mateoren ebanjelioan. Paraboletan adierazi duen Erreinua (*ikus aurreko igandeak*), elkarte jakin batean gertarazi eta mamitu nahi du. Herri berri bat sortuko du, eta herri hori izango da Erreinuaren legami gizartean. Jakina! Erreinua gertarazteak bere sustraiak eta bere baldintzak ditu, gaurko irakurgaietan nahiko zehatz eta argi agertzen diren sustrai eta baldintzak.

Sustrai edo oinarri, maitasuna dago. “Erruki izan zituen” (*ik. Ebanj.*). “Nork aldenduko gaitu Kristoren maitasunetik?” (2. *irak*). Ez da, gaur bai eta bihar ez ari den maitasuna, betirako maitasuna da, betirako elkargoan sendotzen den maitasuna. Jainko berberaren maitasun azkengabea. Hor hasten dena eta hor burutzen dena. “Ona da Jauna guztientzat, errukior berak egin dituenentzat” (*salmoa*).

Maitasun honetatik abiatu, Jainkoaren errukia otordu bihurtzen da gaurko ebanjelioan. Jatea eta edatea askotan agertzen dira Biblian, Jainkoaren bihotza ezagutzera emateko. Jainkoak betetasunaren otordura bildu nahi gaitu. Betetasun hori beraren ezaguera da. Eta Jainkoak gurekin jan nahi du, otorduan bera ezagutu dezagun. Ez al ditugu otordua erabiltzen elkar ezagutzeko eta geure adiskidetasuna lantzeko? Jainkoak parekorik ez duen banketea prestatu digu, eta maitasuna jan/edan dezakegu, ase arte.

Otordu honek baditu bere baldintzak:

- Doanezko otordua da, debaldekoa. Jainkoaren dohaina ez dugu inork merezi, eta ezin dezakegu inork ordaindu. Jainkoak berak antolatu digu, eta doan jasotzea da dagokiguna. “Egarri zareten guztiok, etorri uretara; dirurik ez duzuenok ere bai”. Erosi garia et ajan ordaindu gabe” (*1. irak.*). Horregatik, gainera, Jesusek ematen duen jatekoa ez da guretik sortzen, Berak sortzen du ezerezetik, ezer gutxitik, berak berez ematen digula adieraziz (*ik. Ebanj.*).
- Pobreentzako otordua da. Egarri direnek, gose direnek, zer jakin ez daukatenek... horiek dute otordu honetarako eskubidea. Jesusen dohainaren aurrean gerta dakigukeen txarrena, aserik egotea da. Zergatik pobreentzat? Ezin dutelako ordaindu! Jainkoak bere maitasuna erakutsi nahi du, eta maitasun horren dohainaz harrituko den jandea nahi du. Eta harritzen onenak pobreak dira.
- Asetasuna zertan aurkitu ez dakitenentzako otordua da. Hainbeste gauzatan gabiltza zorion bila! Eta ezin aurkitu zorionik. Hori dugu gure drama eta atsekabea. Kontsumo-gizarte honek ez daki, asetzen duenik aurkitzen eta eskaintzen. Jainkoaren eskaintza onartu eta jasotzeko desengaino apur bat ere behar izaten da. Bestela, Jainkoaren eskaintza teoria hutsean gelditu ohi zaigu (*ik. 1. irak.*).

Otordu honek ez du bilatzen sabela asetzea bakarrik. Otordu hau Erreinuaren eskaintza da. Hori dela eta, otordu hau Jainkoari entzutea da, haren hitza onartzea, sinestea. Jainkoak gizakiarekin egiten duen elkargoaren aurrean gaude, eta Jainkoaren dohaina onartu egin behar. Maitasuna sinestu egiten da, eta sinestea da maitasuna eskertzeko modu egoki bakarra. Bigarren irakurgaiak erakusten duen segurantzaren fedetik bakarrik etor daiteke, ez beste ezertatik.

Erreinuaren ederretara garamatzen otordu hau, dohain den neurrian enkartu ere bihurtzen da: “Emaiezue zeurok jaten”. Ebanjelioaren girotan dohain oro eginkizun bihurtzen da. Jasotzeak ematera behartzen gaitu. Eta Jesusen jokaera gertatzen zaigu eredu, hark ez baitzuen jandea goserik eta beharrearantz utzi. Haietaz errukiturik, eman egin zien. Fededunak ere ongi daki zer egin behar duen, eman. Ez diote balio fededunari askotan erabil ohi ditugun zera horiek: “Nik eman diezaiokedanak ez du arazoa konpontzen” eta horrelakoak. Daukaguna banatzeak dohaina ugaltu egiten du.

Fededunak, gainera, ez du jatekoa bakarrik ematen, ez du gorputzak behar duena bakarrik ematen; gizakiak behar duen dohain osoa eskaintzen du: ogi psikologikoa, ogi kulturala, ogi moralak, ogi erlijiosoa... Eta ematen duena, ez du ematen protagonista bihurtzeko. Erreinuaren zordun delako ematen du. Behartsuen zerbitzari egiten da, solidaritza ederraz. Eta ematen duen horretan, berak Jainkoaren dohain beteagoa hartzen du. Emateak aberastu egiten du.

Zer esan nahi izan ote dezake gaur “jaten ematea”? Etxea ireki eta mahaia eskaintzea? Gure denbora eta hitza eskaintzea? Gure irrifarra eta bisita oparitzea? Gure adiskidetasunaz hurbiltzea? Bakoitzak neurtu behar du hori. Kontua da, ikusten dugun gaitzarekin eta beharrezkin ez “erretzea”, eta gure izate osoa solidaritazko ahalegin bihurtzea. Gauzak Jainkoak konpon ditzakeela? Horrexegatik jarri zaitu zu batzarraren aurrean, zeuk konpon ditzazun. “Emaiezue zeurok jaten”. Eta ez ahaztu: jaten ematea ongi dago, baina zertarako da hori, giza-bihotzak behar duen duintasuna eta itxaropena ematen ez baditugu?

Eukaristiaren mahai oparora ekarri gaitu Jaunak, gutaz errukiturik. Jan dezagun debalde Jainkoaren dohaina eta bizi gaitzen. Eta eraman dezagun maitasunaren dohain azkengabea gizartera!

Jainkoaren herriaren otoitza

Dei egiogun, senideok, Jainko Aitari eta eska diezaiogun entzun ditzala bihotzez egiten dizkiogun otoitzak.

— Frantzisko Aita Santuaren alde, Jose Ignazio gure Gotzainaren alde eta eliz-ardurak dituzten guztien alde: Jaunak bere Hitza zuzen aldarrikatzeko jakinduria eman diezaien. Egigun otoitz. R/.

— Bere etxetik eta familiatik urruti diren guztien alde, arriskuan bizi diren guztien alde: Jaunak aurrera egiteko behar den kemena eman diezaien. Egigun otoitz. R/.

— Herri guztietako eta erlijio guztietako gizakien alde: Jaunak bere onginahia agertu eta bere bidetik gida ditzan. Egigun otoitz. R/.

— Gure senide hildakoen alde: Jaunak errukiz onar ditzan betiko, bere santuen artean. Egigun otoitz. R/.

Gure Jainko eta gure Jauna, Zure Semeak behartsuekiko eta sufritzen duten guztiekiko daukan onginahiean Zure aita-maitasuna adierazi diguzu; entzun gure otoitzak eta egizu Zure indarrak ugaritzen duen ogia gure eskuzabaltasunak bana dezala eta Zure sakramentuetan parte hartzeak beharrik gehiena dutenei begira jar gaitzala beti. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengo otoitza

**Zaindu ezazu beti, Jauna,
zeruko ogiaz janaritu eta biziberritu duzun zeure herria,
eta, guretzat duzun etengabeko arduraz,
egin gaitzazu betiko bizirako gai.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**